

## IKASTOLEN ELKARTEKO UDALEKUEN PROTOKOLOA

### AURKEZPENA

Ikas Kultur Elkarteko (IKE) Udalekuen Proiektua Ikastolen Elkarreak udan antolatzen dituen udalekuak kudeatzeaz, koordinatzeaz eta ikuskatzeaz arduratzen da.

Horrela, ikastoletako gazte euskaldunek jasotzen duten hezkuntza formala osatu eta luzatu nahi dugu, baina oinarrizko ikuspuntu ezberdin batetik: Udalekuak, aisiaren eta astiaren testuinguruan gauzatzen dira. Elementu ludiko hau oinarrizkoa da proposatzen diren helburu hezigarriak eta ekintzak ulertzeko.

Hala ere udaleku hauetan hezkuntza kontzeptua azaltzen da, izan ere, gazte euskaldunak hezi nahi ditugu aisiaren eta astiaren ikuspuntutik. Horrela bada, udalekuak, aisiako eta astialdiko heziketatzat ulertu behar dira, baina, konnotazio bikoitzarekin: ikastea (hezkuntza) eta ondo pasatzea (aisia eta astia).

Beraz, IKEko Udalekuen Proiektua funtsezko lau zutabeetan oinarritzen da:

Hezkuntza proiektu euskalduna

Aisian eta astialdian zentratutako proiektua

Baloreetan oinarritutako hezkuntza integralaren proiektua

Kalitatezko proiektua

Hezkuntza integralaz aritzean, baloreetan hezteaz ari gara, hala nola:

- Euskaraz bizi
- Euskal kultura
- Segurtasuna
- Autodiziplina eta autokontrola
- Elkarbizitza eta harremanak
- Lankidetzeta eta kolaborazioa
- Integrazioa eta tolerantzia
- Errespetua
- Esperimentazioa
- Erantzukizuna
- Ekologia eta ingurumena
- Gauzak zaintzea
- Hezkidetzeta
- Sexu-hezkuntza
- Osasuna eta higieena
- Iniziatiba eta ekiteko gaitasuna
- Sormena eta berrikuntza

<sup>1</sup> Dossier honetan azaltzen diren ekintza guztiak ezin izango dira udalekuan zehar gauzatu. Orokorrean, udalekuak dituen azpiegitura, instalazioen, baliabide materialen zein giza baliabideen arabera jarriko dira martxan.

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

Balore hauek guztiak udalekuan zehar presente egongo dira, bai eguneroko ekintzetan, elkarbizitzan eta abaguneak sortzen diren unetan ere. Hau da, zirimiria bezalako da: Neska-mutilen barrenak emeki-emeki bustitzera helden da.

Batez ere, neska-mutil euskaldunak hezi nahi ditugu, beraien kultura eta ohiturak maite dituztenak eta horretaz harro sentitzen direnak, beste kulturak errespetatu eta ezagutzeko kuriositatea dutenak, toleranteak, besteekin nahiz ingurunearekin errespetuzko tratamendua dutenak, elkarriketaren aldekoak. Honez gain balore hauek ere landuko dira: Jokabide osasungarriak, berdintasunean oinarritutako tratua (ez sexista), lankidetzeta, norbere ekintzen erantzule izatea eta inguruarekiko zein gauzekiko ardura; autodiziplina maila altua, komunikatzeko gaitasuna eta, bai inguruarekin bai pertsonekin afektuzko harremana izatea; irekia, malgua eta ezagutzaz zein helburuz betea izatea; gaitasun eta mugen jabe izatea; iniziatiba, ekiteko gaitasuna, sormena eta berritzeko gaitasuna. Laburbilduz, **integralki zentzu guztietan** formatutako neska-mutilak.

Ezin dugu ahanzi, hezkuntza mota hau, neska-mutilak beraien eskolako lanetatik at, lasai-lasai eta disfrutatzen ari diren denbora tartean garatzen dela. Eurentzako garrantzi handikoa da udalekuetako egonaldia, bertan, beste herri batzuetako lagunekin elkartzan dira eta esperientzia berriak trukatzeko, gauza berriak ezagutzeko...aberastasun personala ahalbideratzen du eta euren arteko laguntasun loturak erabat finkotu.

Dokumentu honek, Ikas Kultur Elkarteko Udalekuen Proiektuak, udalekuetako programazioetan begiesten eta lortu nahi dituen baloreak, helburuak, ekintzak eta erantzukizunak jasotzen

ditu. Ikuspuntu honetatik hiru funtzio betetzen ditu:

- Ikas Kultur Elkarteko Proiektuko helburuak deskribatu, gurasoei eta neska-mutilei udalekuan burutuko diren ekintzen berri eman eta Proiektu hau aurrera eramango duten pertsona bakoitzaren ardurak eta erantzukizunak argitzea.
- Horrez gain, gurasoentzako nahiz neska-mutilentzako gida bezalako izatea nahi da. Horrela, ahalik eta informazio osatuena izan dezaten, bai bere garapenari buruzkoa bai beraien eskubide eta betebeharrei buruzkoa ere.
- Azkenik, Ikas Kultur Elkarteak eta honengan sinisten duten gurasoek dituzten baloreak islatzea du xede.

Horrela bada, neska-mutilen denbora libreko hezkuntzan elkarrekin eta aktiboki parte har dezagun.

Ondorioz, gustatuko litzaiguke guraso eta seme-alaben artean dokumentu honetako edukiak komentatzea:

- Ikas Kultur Elkarteko Kanpamenduetako Proiektuan, Idearioa osatzen duten baloreak, helburuak, ekintzak eta neska-mutilen erantzukizun zehatzak (5. orrialdea)
- Gurasoen erantzukizunak (24. orrialdea)
- Neska-mutilentzako udalekuetako funtzionamendurako arautegi orokorra (26. orrialdea).

Era honetara, zuzendarien iradokizunei eta proposamenei irekita dagoen dokumentu dinamikoa dugu, eraginkorra izango den xedearekin. Hori dela eta, animatzen zaitugu protokoloaren amaieran dagoen 1Eranskinean, baliagarria iruditzen zaizuna idaztera.

Eskerrik asko gure parte hartzeagatik.

## IKAS KULTUR ELKARTEKO IDEARIOA

BALOREA	EUSKARAZ BIZI
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Neska-mutilen arteko euskarazko elkarbizitza.</li><li>● Erabileran motibatu eta euskara elkarrekin komunikatzeko eta erlazionatzeko tresnatzat bultzatu, ez ikasgaitzat.</li><li>● Begiraleen arteko erlazioa, neska-mutilen artekoa eta begirale eta neska-mutilen artekoa euskara hutsean garatu.</li><li>● Neska-mutilengan, euskararen erabilera, kultura espresatzeko bide gisa irakatsi, bizitzeko era gisa, besteekin sentitu eta erlazionatzeko, baita beraien ingurune natural eta materialarekin ere.</li></ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Euskara erabili, begiraleek elkarrekin komunikatzeko eta barne harremanetarako. Baita, neska-mutilekin komunikatzeko eta erlazionatzeko ere.</li><li>● Udalekuko neska-mutilek beraien artean komunikatzeko eta erlazionatzeko soilik euskara erabiltzen dutela kontrolatu.</li><li>● Euskararen erabilera udalekuko idatzizko dokumentuetan, erantzuleen arteko komunikazioetan baita neska-mutilenetan ere. Udalekuko ekintzetan soilik euskara erabiltzea.</li></ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Euskaraz ondo hitz egitea, ulertzea, irakurtzea eta idaztea.</li><li>● Neska-mutilen arteko elkarbizitza euskara hutsean gauzatzea.</li><li>● Begiraleen arteko harremanak, neska-mutilen artekoak eta begirale eta neska-mutilen arteko harremanak euskara hutsean gauzatzea.</li><li>● Euskara komunikatzeko eta erlazionatzeko tresnatzat hartu, ez ikasgaitzat.</li></ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	EUSKAL KULTURA
<div data-bbox="183 352 343 386" data-label="Text"> <p>HELBURUAK</p> </div>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilengan esperientzia aberasgarriak eta anitzak sortaraztea, euskal kultura adierazteko bideak ezagutzeko.</li> <li>● Neska-mutilek, herriko kultura adierazteko erak ezagutu ditzatela, baita udalekua egingo den ingurunekoa ere.</li> <li>● Neska- mutilek, udalekua kokatuta dagoen inguruko geografiarekin erlazionatutako arloak ezagutzea: Historia, artea...beti ere udalekuko ekintzekin erlazionatuta.</li> <li>● Beste kultura eta bizi era batzuk ezagutzea, Euskal Herriko ingurunearen baitan.</li> <li>● Euskal Herriko beste toki batzuetako izateko era ezagutu.</li> <li>● Neska - mutilek, euren herrikoez gain, Euskal Herriko ohiturak, folklorea, dantzak, gastronomia, jaiak, kirola, jolasak... ezagutzea.</li> </ul>
<div data-bbox="183 705 343 739" data-label="Text"> <p>EKINTZAK</p> </div>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euskal herriko lurralde ezberdinetako neska-mutilen arteko elkarbizitza, udaleku berean. Eguneroko tratuak berak, neska-mutilen arteko hartuemana eta ezagupenen elkartrukea bideratzen dute.</li> <li>● Begiraleen eguneroko lanean, bai neska-mutilekin baita euren artean erlazionatzerakoan ere, ezagutzen elkartruke bat ematen da.</li> <li>● Gaubelak, solasaldiak, bazkariak... bezalako ekintza zehatzak, non neska-mutilen euren arteko esperientzien trukea zein begirale eta neska-mutilen artekoa protagonista den.</li> <li>● Euskal kulturaren adierazpenen erakustaldi zehatza eta programatua: dantzak, folklorea, kantak, bertsoak, musika, Euskal Herriko lurraldeetako herri-kirolak...</li> <li>● Neska-mutilek publikotzat parte hartzea euskal kulturaren adierazpenetan: dantzak, folklorea, kantak, bertsoak, musika, Euskal Herriko lurraldeetako herri-kirolak...</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

<p>EKINTZAK</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Neska-mutilen parte hartzea, euskal kulturaren adierazpenak erreproduzitzen dituzten ekintza programatuetan: dantzak, folklorea, kantak, bertsoak, musika, Euskal Herriko lurraldeetako herri-kirolak...</li><li>● Egoera zehaztuz baliatu eta, esaterako, toki desberdin askotako neska-mutilak batera dauden udalekuetan, "ad hoc" ekintzak programatu.</li><li>● Udalekua kokatuta dagoen eremuko kultura adierazteko bideetaz baliatu, herriko jaiak, gertaerak, etab. Era berean, baita Euskal Herriko beste toki batzuetakoak ere.</li></ul>
<p>GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Euskal kultura adierazteko modu ezberdinak dituzten ekintzetan aktiboki parte hartu: dantzak, folklorea, kantak, bertsoak, kantua...</li><li>● Beste neska-mutilekin elazionatu eta komunkatu, esperientzia trukaketa aberastuz.</li><li>● Programatzen diren neurrian, Euskal herriko lurraldeetako herri-kirolen eta jolasen erakustaldietan publiko bezala parte hartu.</li><li>● Programatzen diren neurrian, Euskal Herriko lurraldeetako herri-kirolak eta jolasen erakustaldietan, parte hartu.</li></ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	SEGURTASUNA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilen osasun fisikoa zaintzea kanpaldian zehar.</li> <li>● Gure organismoaren ahultasunaz jabetu, euren jokabideetan jarrera ziurragoak garatzeko. Euren segurtasuna, kideena eta orokorrean inguruko pertsonen, animalien eta gauzen segurtasuna bermatu.</li> <li>● Neska-mutilengan, euren gorputzaren ezagutza bultzatu, euren mugen eta ahulezien jabe eginarazteko.</li> <li>● Geure segurtasuna nahiz inguru hurbileko segurtasuna hobetzeko, neska-mutilekin jarrearen gaineko hausnarketa egin, kideekiko arreta berezia mantenduz.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Udalekuan neska-mutilek gauzatzen dituzten ekintza guztietan, segurtasun neurriak hartu.</li> <li>● Udalekuan neska-mutilen eguneroko gertaeretan eta instalazioetan, segurtasun neurri guztiak hartu.</li> <li>● Egoera zehatzez baliatu segurtasun neurrien gainean hausnartzeko, esaterako, sua egiten denean, hondartzara bainatzera doazenean, menditik zehar paseatzerakoan edo eskalatzea edo bizikletan ibiltzea bezalako ekintza “arriskutsuetan”.</li> <li>● Beharrezko segurtasun neurriak kontuan izan ez diren egoera zehatzetaz baliatu, esaterako, neska edo mutiko batek beste bati harria botatzen dioenean, neska edo mutiko bat txantxetan ari denean plater bat jaurtikitzen dioenean, bizikletan abiadura handian ibiltzean,... Egoera hauek zuzendu eta arreta berezia eman, segurtasun neurri ezak eta arduragabekeriak ekar ditzakeen ondorio kaltegarriak argi utziz.</li> <li>● Udaleku hasieran eta udalekuan zehar, neska-mutilei gogorarazi, bete behar diren arau batzuk daudela euren osotasuna zaintzeko.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

### GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK

- Udalekuko eguneroko gertaeren eta instalakuntzen ziurtasun neurrien erabilera egin, norberak nahiz lagun batek minik har ez dezan. Norbere ziurtasuna, lagun baten, begiraleena eta zuzendariaren ziurtasuna arriskuan ezarriko duen jarrerarik ez harritu.
- Egin kasu eta tentu egon, zuzendariari, begiraleei eta ziurtasun neurriei.
- Ziurtasun neurriak zaindu, adibidez, sua egiterakoan, hondartzan bainatzerakoan, menditik paseatzerakoan, bizikletan ibiltzean edo eskalatzea bezalako ekintza "arriskutsuetan".

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	AUTODISZIPLINA ETA / EDO AUTOKONTROLA
<p>HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilek talde funtzionamenduaren eta jokabideen inguruko arau jakin batzuk bereganatzeko gaitasuna garatu, taldean hobeto moldatzeko. Arauekiko errespetua sustatu, elkarrenganako errespetu gisa.</li> <li>● Neska-mutilak obedienezian hezi, besteekiko nahiz norbere buruarekiko errespetu forma bezala. Taldea babestu eta biltzeko obeditzearen hausnarketa garatu, elementu babesle eta bateratzaile bezala.</li> <li>● Erantzukizunaren zentzua barneraraztea eta arauak betetzeko borondatea sendotu.</li> <li>● Bere interesak zaintzen dituzten neska-mutilengan errespetuaren eta obedienezian zentzua sustatu.</li> </ul>
<p>EKINTZAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Udalekuko funtzionamenduko araudiaren informazioa ematea eta betetzea.</li> </ul>
<p>GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilek udalekuaren funtzionamenduaren araudia ezagutzea, baita beraien eskubide eta betebeharrak ere.</li> <li>● Udalekuko araudia bete eta errespetatu.</li> <li>● Udalekua egiten ari den ikastolako edo aterpetzeko instalakuntzak errespetatu eta bertako arautegia bete.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	ELKARBIZITZA ETA HARREMANAK
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Taldean elkarbizitzako baloreak garatu eta sustatu: Taldekideen arteko harremanak, komunikazioa, konfiantza, garapen pertsonala, afektua, etab.</li><li>● Udalekuko elkarbizitza eta harreman bateratzaileak sustatzen dituzten errespetuzko jarrerak suspertu.</li><li>● Puntualtasun kontzeptua garatu neska-mutilengan beste kideekiko eta begiraleekiko errespetutat.</li></ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Udalekuan, neska-mutilen arteko elkarbizitza 24 orduz.</li><li>● Jateko, lo egiteko, ikasteko, jolasteko... espazio berak erabili.</li><li>● Harremanak, komunikazioa eta taldekide izatea bultzatzen dituzten jolasak.</li><li>● Neska-mutilek bete behar duten ordutegia izatea; altxatzeko, jateko, lotara joateko, ekintzetarako, etab.</li></ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Lagunen arteko elkarbizitza eta orokorrean udalekuan errespetua, alaitasuna eta giro ona egon dadin elkarlanean aritu.</li><li>● Udalekuan ezarritako ordutegia bete lagunenganako, begiraleenganako eta zuzendariarenganako errespetuan, baita elkarbizitza eta egonaldi hobea izateko</li></ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	LANKIDETZA ETA KOLABORAZIOA
<p>HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilak ez-indibidualismoan, talde lanean, elkartasunean, taldearen mesedetan eta errendimenduan, lanarekiko zein talde garapenarekiko ekarpen pertsonaletan, besteen adiskidetasunaren gozamenen, elkar ulertzeko komunikazioan eta ulertzeko gaitasunean hezi.</li> <li>● Jokabide solidarioak sustatu neska-mutilengan: Besteengan pentsatzen ikasi, besteen tokian jartzen ikasi, gauzak besteen ikuspuntitik behatzen ikasi, elkar banatzen, parte hartzen, ekarpenak egiten etab.</li> </ul>
<p>EKINTZAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Taldean oinarritutako ekintzak, jolasak, kirola, elkarbizitza...</li> </ul>
<p>GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Taldekide izatearen zentzua bultzatzen duten ekintzetan parte hartu.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	INTEGRAZIOA ETA TOLERANTZIA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Egoera berriek eskaintzen dituzten bizipenez eta neska-mutilek pertsona berriekin dituzten harremanak nahiz sozializatzeko dituzten inguru berrien ezagupenetaz baliaturik, neska-mutilen jarrerak eta jokabideak malgutu.</li><li>● Neska-mutilengan tolerantzia bultzatu, ezberdinak diren neska-mutilekiko harreman interpersonalen bidez: Sexu ezberdineko pertsonak, sinismen erlijioso ezberdinetakoak, ohitura ezberdinetakoak, gizarte maila eta inguru geografiko ezberdinetakoak, bizitza ulertzeko era ezberdina duten pertsonak etab.</li><li>● Kanpamenduko beste neska-mutilekin komunikatzeko eta erlazionatzeko moduak ezagutu, eurekin nola jokatu ikasteko.</li><li>● Arazo fisikoak, psikikoak, izaera arazoak, elikadura arazoak, etab. dituzten neska-mutilekin elkarbizitza aurkitu, eguneroko bizimoduan integratzeko.</li><li>● Pertsona ez-gaituak eta / edo kanpo ezaugarri ezberdinak dituzten pertsonetikiko harremanak desmitifikatu eta normalizatu.</li></ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Neska-mutilen parte hartzea udalekuko ekintza guztietan, baldintza berdinetan eta inolako bazterketarik gabe, dauden ezberdintasunak aintzat hartuz: Neska-mutilak taldean integratzeko jolasak.</li><li>● Egoerak eskatzen duenean, neska-mutilek dituzten arazo eta zailtasunen gaineko hausnarketa.</li><li>● Arazoren bat izan dezaketen neska-mutilen integrazioa eguneroko elkarbizitzan: zeliakoak, diabetikoak, Down sindromea dutenak, itsuak, autistak, epileptikoak... Arreta berezia, neska-mutiko hauek parte har dezaketen ekintza guztietan sartzeko eta integratzeko orduan, udalekuko plana oztopatu gabe.</li></ul>

### GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK

- Udalekuko ekintza guztietan parte hartu, baldintza berdinetan eta inolako bazterketarik gabe.
- Neska-mutilak taldean integratzen dituzten jolas eta ekintza guztietan parte hartu inor diskriminatu gabe, inor gutxietsi gabe izaera, gaitasun fisiko, psikiko, ... ezberdinak izateagatik.
- Arazoren bat izan dezaketen neska-mutilei eguneroko elkarbizitzaren garapen normalean lagundu: Zeliakoak, diabetikoak, Down sindromea dutenak, itsuak, autistak, epileptikoak...
- Ez-gaituren bat taldean balitz, lagundu programatutako ekintzetan parte hartzen, beti ere, ahal den neurrian udalekuko plana oztopatu gabe.

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	ERRESPETUA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Ezberdintasun fisiko, sexual eta abarrekiko errespetua sendotu baita pertsonen intimitatearekiko nahiz pribatutasunarekiko.</li> <li>● Iritzi nahiz erlijio ezberdinekiko errespetua sendotu, bakoitzaren garapen pertsonala errazteko.</li> <li>● Aukera politiko ezberdina nahiz ideologia ezberdina dutenekiko errespetua sendotu.</li> <li>● Udaleku inguruko pertsonak merezi duten errespetua eta kontsiderazioa bultzatu neska-mutilengan, baita programatutako ekintzak burutzen direnean ere.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Kanpamenduko erantzuleek eskura dituzten neurri guztiak jarriko dituzte, neska-mutilen intimitatea eta pribatutasuna bermatzeko, udalekuko egonaldian zehar. Baita erlijio sinismenen praktika eskatzen dutenei ere.</li> <li>● Kanpamendua edo ekintzak egiten diren inguruko pertsonekin harremana duten programatu edo programatu gabeko ekintzak egitea.</li> </ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Lagunen intimitatea errespetatu udalekuko egonaldian zehar.</li> <li>● Erlijio, politika...kutsua duten ekintzak eta ospakizunak ekidin.</li> <li>● Lagunen nahiz begiraleen aukera ezberdinak errespetatu.</li> <li>● Udaleku inguruko eta programatutako ekintzetako pertsonak errespetu eta kontsiderazio handiz tratatu.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	ESPERIMENTAZIOA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Familia ingurutik at bizipen berriak bizi, neska-mutilen garapen pertsonala aberasteko, bai ikuspuntu kognitibotik bai afektibotik.</li> <li>● Norbere esperientziatik, egoera berrietan parte hartzeagatik, ekintzetatik etab. ikasi.</li> <li>● Neska-mutilengan beraien esperientzien, iritzien, pentsatu eta sentitzeko moduen berezko trukea erraztu.</li> <li>● Neska-mutilen bizi-esperientzia aberastu begiraleen harremanen bidez.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Adin ezberdinetako neska-mutilen elkarbizitza, ohituta ez dauden inguru batean.</li> <li>● Neska-mutilek, familiagirotik kanpo, euren pare taldeko kideekin harremanak lantzea, begiraleen eta zuzendariaren zaindaritzapean.</li> <li>● Ekintza berriak gauzatzea, gehienetan neska-mutilek ezagutzen ez dituztenak, horrela ez bada ere, egoera eta dinamika ezberdin baten gauzatuak.</li> </ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Udalekuko egonaldia ahalik eta gehien aprobetxatu.</li> <li>● Udalekuko egonaldirako programatuak izan diren ekintza guztietan aktiboki parte hartu.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	ERANTZUKIZUNA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Euren jokabideen gaineko hausnarketak garatu neska-mutilengan, jokabide batek beregan eta besteengan eragina eduki dezakeela barneratu dezaten.</li><li>● Neska-mutilak, eurek egindako ekintza eta hauen ondorioez jabetzea eta erantzule izatea.</li></ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Taldeari demostratu, neska-mutilek ulertzen dutela euren ekintzen erantzule direla. Horrela bada, talde funtzionamenduko arauen aurka doan jarrera edo jokabideren bat azaltzen dutenean, beraien jarrera zuzentzea, elkarrizketak, solasaldiak, tertuliak, hizketaldiak eta “ad hoc” ekintzak erabiliz.</li></ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Norbere ekintzen erantzule izan behar dela kontziente izan.</li><li>● Norbaitek, taldearen funtzionamendurako arauen aurka hartutako jarrerak zuzendu.</li></ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	EKOLOGIA ETA INGURUMENA (1)
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Neska-mutilak dauden inguru geografikoa errespetatu dezaten kontzientziarazi; bertako bizidunak, instalazioak, gauzak, animaliak landareak, etab. zaindu, euren eta besteen gozamenerako.</li><li>● Naturaren galkortasunean eta kontserbaziorako behar bezala zaintzearen beharrez eragin, norbere, bertan bizi direnen eta bisitan etortzen direnen onurarako.</li><li>● Naturaren balorea sendotu, naturatik jasotzen duten guztiaz kontzientziatu, era horretara euren ingurua hobeto errespetatzeko.</li></ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Kanpamendu, auzo edo herriko inguru hurbileko ezagutzarekin erlazionatutako ekintza parte hartzaileak, guztia errespetatu daiten arreta berezia jarri.</li><li>● Neska-mutilek, ingurua errespetatzeko eta gozatzeko eduki behar dituzten jokabideak bultzatu azalpenez lagundutako ekintzen bidez, hala nola, zuhaitzak landatu, bizikletan paseo batzuk, senderismoa, eskalada...</li><li>● Neska-mutilek, naturan egindako ekintzen ondorioz sortutako zaborrak eta hondakinak jasotzea. Kalteak gertatuko balira ahal den neurrian konpondu eta euren ekintzen ondorioen eta erantzukizunen gainean hausnartu.</li><li>● Ingurumena hobetu, posible den neurrian, honelako ekintzekin: zuhaitzen birlandaketa, sasiak kentzea, mendiak garbitzea, errekek garbitzea...</li><li>● Arropak garbitzerakoan bai dutxatzerakoan xaboi eta bestelako garbigarriak neurrian erabiltzea.</li></ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

### GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK

- Kanpamendua, auzoa nahiz herri inguru hurbila ezagutzeko ekintzetan aktiboki parte hartu.
- Udalekua kokatzen den tokia nahiz ekintzak burutzen diren inguru naturala errespetuz erabili
- Ingurumena hobetzen duten ekintzetan parte hartu, ahal den neurrian, herriko gizarte agenteekin bateratutako ekintzen bidez.
- Arropak garbitzerakoan baita higiene pertsonalean ere xaboi eta bestelako garbigarriak neurrian erabili

Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	GAUZAK ZAINTEA
<p>HELBURUAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Materialen, azpiegituren eta gauzen balioaz kontzientziatu baita ondasun higigarri eta higiezinez ere.</li> <li>● Materialarekiko, altzarietara eta instalazioetara errespetua garatu norbere zein taldearen onurarako, erabilpen onaren bidez.</li> </ul>
<p>EKINTZAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilei, erabiltzen dituzten gauzen erantzule izatea exijitu: Gauzak erabiltzeko baimena eskatzea, ondo zaintzea eta hartu bezala bueltatzea.</li> <li>● Egoerak laguntzen duenetan, adibidez, zerbait apurtzean, erantzule den pertsonak konpondu beharko du. Ezin bada, kaltearen erantzuleak, konponketaren prozesu osoa ikusiko du.</li> </ul>
<p>GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Erabiltzen dituzten gauzak eta instalazioak zaindu eta erantzule izan.</li> <li>● Sor daitezkeen kalte-ordainak konpontzen lagundu, ahal den neurrian.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	HEZKIDETZA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Sexu ezberdintasunaren aberastasunean hezi, beti ere, berdintasunean eta ez-diskriminazioan oinarrituta (zentzu batean edo bestean).</li> <li>● Norbere intimitatearen errespetuan hezi.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neskek eta mutilek naturaltasun osoz konpartitzen dituzte espazio berak, jolas berak, jatordu berak, lokal berak, material berak eta instalazioak. Begiraleek ere jokabide bera dute.</li> <li>● Hizkuntza ez sexista erabiltzea, jarrera eta jokabide ez sexistak. Tratu pertsonal ez sexista.</li> <li>● Neskak eta mutilak zeregin, obligazio eta betebeharrak berak egitea: Mahaia jaso, garbitu, erratza pasa, higiena, jolasak...</li> <li>● Neskak eta mutilak elkarrekin jolastea eta kirol ekintza berdintsuak garatzea, talde eta ekipa mistoak osatuz.</li> </ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska eta mutilek naturaltasun osoz, espazio berak, jolas berak, jatordu berak, lokal berak, materiala eta instalazio berak konpartitzea.</li> <li>● Hizkuntza ez sexista, adibide ez sexistak eta jarrera zein jokabide ez sexistak erabiltzea.</li> <li>● Neska eta mutilek zeregin, obligazio eta betebeharrak berdinak betetzea: Mahaia jaso, garbitu, erratza pasa, higiena, jolas...</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	SEXU HEZKUNTZA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilak bi sexuen arteko ezberdintasun fisiko eta biologikoan hezi, ikuspuntu ez diskriminatzaile eta batzuen zein besteen ezberdintasun naturalak errespetatuz.</li> <li>● Neska-mutilak, beste sexua deskubritzera eta ezagutzera orientatu.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Nesken eta mutilen arteko ezberdintasun naturalak ulertu eta ezagutzeko, elkarrizketa, solasaldi, hizketaldi eta “ad hoc” ekintzetaz baliatu.</li> <li>● Bi sexuetako baten duintasuna gutxiestea edo kaltetzea eragiten duen edozein adierazpen era (hitzezkoa, keinuzkoa..) desprestigiatu, elkarrizketak, solasaldiak, hizketaldiak eta “ad hoc” ekintzak erabiliz.</li> </ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilen ezberdintasun naturalak ulertu eta ezagutzeko interesa jarri.</li> <li>● Bi sexuetako baten duintasuna gutxiestea edo kaltetzea suposatzen duen edozein adierazpen era ekidin.</li> <li>● Lagunen erabakiak errespetatu.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	OSASUNA ETA HIGIENEA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilak osasunak, garapen pertsonalerako eta taldearen garapenerako duen balioaz kontzientziatu.</li> <li>● Norbere gorputzaren balioaz jabetu, baita bizitza beraren balioaz eta inguruko bizitzen eta gorputzenaz ere.</li> <li>● Higienearen zentzua sendotu osasun ona edukitzeko tresnatzat, batez ere zehaztuz, norbere higiene pertsonalak talde higienean eragiten duela bai norberarentzako bai taldearentzako mesedetan.</li> <li>● Norbere osasunaren garrantzia garatu drogen erasoen aurrean, drogak organismoarako osasuntsuak ez direla kontsideratuz. Bereziki erretzea, edatea... ez direla osasungarriak transmititu.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Norbere gorputzaren higiena: bi edo hiru egunetik behin dutxa (instalazioen arabera) eta aho-aparatuak egunero 3 aldiz garbitu (behin gutxienez)</li> <li>● Arropa garbiketa: Aldizka arropaz aldatzen, garbigailua erabiltzen ikasi baita garbitasunaren prozesu osoa ere (garbitu, eseki eta lehortu)</li> <li>● Zaurien zainketa eta odolaren kontrola, kasuren bat gertatuz gero.</li> <li>● Logelen eta gainontzeko gelen garbitasuna eta mantenimendua</li> <li>● Aldeko egoerez baliatu jokabide osasungarriak zeharka sustatzeko, droga mota ezberdinez informatzeko nahiz drogen gaia tratatzeko, beti ere osasun ikuspuntutik eta hizketaldiak, solasaldiak... erabiliz.</li> </ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

### GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK

- Higiene pertsonala zaindu, arropa eta udalekuko objektu pertsonalak txukundu.
- Logelen eta gainerako gelen garbitasunean lagundu.
- Droga legal nahiz ilegalen kontsumoa ekidin.
- Jatordu bakoitzean ematen diren janariak normaltasun osoz jan, jatorduaren garapen naturala oztopatu gabe.

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	INIZIATIBA ETA EKITEKO GAITASUNA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Neska-mutilak ekintzak, jolasak, eta gogoratzen zaizkien gauzak proposatzera bultzatu.</li><li>● Neska-mutilen iradokizunei zabalik egon, batez ere, ekintzei dagokienean edo berauek burutzeko erari dagokionean...</li></ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Udalekura etortzea ere berritzaile izatea da, neska-mutilentzat esperientzia berri bat baita.</li><li>● Inprobisazioa, inizatiba eta ekiteko gaitasuna sustatzen dituzten jolasak (altxorren bila), egoera berri eta arazoei erantzuna emateko, finkatutako helburuak lortzeko xedearekin.</li></ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"><li>● Beraien arazoak konpontzeko eta egoera berriei aurre egiten laguntzen dien sormena, inizatiba eta ekiteko gaitasuna sustatzen dituzten ekintzetan parte hartzea</li></ul>

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

BALOREA	SORMENA ETA BERRIKUNTZA
HELBURUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilengan sormena eta gaitasun berritzaileak sustatu.</li> <li>● Neska-mutilengan sormena eta gaitasun berritzaileak bermatu.</li> <li>● Neska-mutilengan sormena eta gaitasun berritzaileak bultzatu.</li> </ul>
EKINTZAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Neska-mutilen aisian garatutako udalekuak sormen esparru bat darama urte osoko hezkuntza formalaren aurrean.</li> <li>● Neska-mutilen sormena bultzatzen duten eskulan tailerrak gauzatu: Pintura, zeramika...</li> <li>● Espresio tailerrak gauzatu (antzerkia, mimoa...) non neska-mutilek ardura guztia hartzen duten: gidoia, eskenatokia...</li> <li>● Solasaldiak, gaubelak, hizketaldiak... non neska-mutilak “motu propio” diren protagonista nagusiak, taldeari bertsoak, txisteak, istorioak, esperientziak, bitxikeriak... eskainiz eta eurek euren jolas eta ekintza propioak sortzeko aukera duten.</li> <li>● Gurasoei eskainitako azken festa, non, neska-mutilek antolatzen dituzten euren ekintzak: Ideia, gidoia, elkarrizketak, espresatzeko era, eszenografia, jantziak, dekoratua eta ikuskizunaren aurkezpena.</li> </ul>
GAZTEEN ERANTZUKIZUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Euren sorkuntza sustatzen den ekintzetan parte hartu, hala nola, eskulan tailerrak, zeramika, pintura...</li> <li>● Espresio tailerretan parte hartu (antzerkia, mimoa...) non, neska-mutilek ardura guztia hartzen duten: gidoia, eskenatokia...</li> </ul>

## GURASOEN ERANTZUKIZUNAK

1.- Gurasoen erantzukizuna da IKE Udalekuetako Proiektuaren arduradunari beraien seme-alabei buruzko informazio guztia ematea. Batez ere, medikamentuei buruz, gaisotasun kroniko, elikadura berezi, droga legal nahiz ilegalen kontsumoa, erlazionatzeko arazo, eta abarrei buruz, udalekuko zuzendariak bai begiraleek, neska-mutirik hobeto artatzeko.

Ez dago gogoratu beharrik zein garrantzitsua den neska-mutirik heziketa ona jasotzea eta horretarako, IKEko arduradunak, udalekuetako zuzendari eta begiraleek ahal denik eta informazio gehien izan behar dute. Zalantzaren bat izanez gero, IKEko arduradunarekin harremanetan jarri besterik ez duzue eta beharrezko kontsulta egin.

2.- Gurasoek argi izan behar dute udalekuko lehen egunak gogor samarrak izaten direla, batez ere lehen aldiz doazenezat, izan ere, inguru ezagun batetik toki berri batean bizitzera pasatzen baitira. Sahiestezina den egokitze eta integratze prozesu natural eta graduala besterik ez da, non udalekuko zuzendariaren eta begiraleen arreta bereziarekin, egokitze eta integratze prozesu hau normaltasun osoz gaitzen duten neska-

mutirik. Beraientzat garaipen handia da, norbere baieztape, harrotasun eta poztasunaren motibo. Baina, udalekuko arduradunek irregularitasun bat erreparatzen badute egokitze eta integratze prozesu honetan, lehen bait lehen jarriko dira gurasoekin harremanetan.

3.- Borondatez beraien seme-alabak udalekuetara bidaltzen dituzten gurasoek, IKE proiektuaren arduradunak eta udalekuko zuzendariak zehazten dituzten ekintzen urratsak esplizituki onartu beharko dituzte.

4.- Gurasoek ezin dute bisitarik egin (lehenengo egunean eta azkenengoan salbu), ez eta telefonoz seme-alabei zuzenenan deitu. Udalekuetara joateko helburu nagusia neska-mutirik familiarik urrutzen, harremanak izaten eta elkarbizitzen ikastea da, eta etengabeko telefono deiek oztopatu egiten dute prozesu hori. Dena-dela, gurasoek hala nahi badute, udalekuko zuzendariarekin eta begiraleekin harremanetan jar daitezke euren seme-alabei buruz hitz egiteko, baina kontuan izan behar da, arazoren bat gertatuz gero zuzendaria edo begiralea bera jarriko litzatekeela harremanetan gurasoekin. Bestalde, neska-mutirik dei diezaietke beraien gurasoei udalekuko egonaldian zehar, baina e z

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

egunero, udalekuko instalakuntzen eta programatutako ekintzen eta irteeren arabera baizik.

- 5.- Nahiz eta, udalekuko egonaldian zehar neska-mutilek beraien beharrak asetuta izan, IKEk idatziz gurasoei jakinaraziko dien diru kantitatea eraman beharko dute (denen berdintasunerako, ez gehiago ez gutxiago). Diru kantitate hori udalekuan zehar gastu txikiak egiteko da (izozkia, patata poltsa... eta ez opariak erosteko), beraz, begiraleei emango zaie diru guztia, eta hau izango da dirua administratuko duena. Norbaitek diru gehiago eramanez gero, ezarritako diru kantitatetik soberan dagoena taldearentzako opari gisa hartua izango da eta taldearen onurarako erabiliko da. Talde horren tutore den begiraleak erabakiko du zer egin diru horrekin.

- 6.- Udalekuko egonaldian zehar, gurasoren batek bere seme edo alaba eramateko eskaria egitea nahi izango balu, IKEko arduradunarekin harremanetan jarri beharko litzateke. Honek udalekuko zuzendariari emango zion berri, beharrezko dokumentazioak prestatzeko eta neska edo mutilaren bila joateko eguna zehazteko. IKEko arduraduna berriz ere gurasoekin jarriko litzateke harremanetan, eta hauek udalekura joaten direnean, udalekuko zuzendariak agertutako dokumentua sinatu beharko dute.
- 7.- Gurasoen erantzukizuna da, beraien seme-alabei udalekura joan aurretik, zereginen eta funtzionamendurako arauen berri ematea. Egonaldirik emankorra eta dibertigarriena izateko helburuarekin.

## NESKA-MUTILEN ARAUDIA

- 1.- Neska-mutilek euskaraz hitz egiten, ulertzen, idazten eta irakurtzen jakin behar dute. Elkarrekin, begiraleekin nahiz zuzendariarekin komunikatzeko erabiliko den hizkuntza bakarra izango baita.
- 2.- Inolako zigor fisiko nahiz psikikorik ez erabiltzeak, ez du esan nahi ez direnik beharrezko neurriak hartuko zuzendariak hala ikusten duen kasuetan.
- 3.- Neska-mutilek ez dituzte hitz eta komentario desagokiak, zatarrak, itsusiak, biraoak... hotan erabiliko.
- 4.- Neska-mutilek ez dute udalekuko ordena aztoratu dezaketen inolako identifikagarrikerik erabiliko.
- 5.- Neska-mutirik ezin izango dira udalekutik sartu edo atera zuzendariaren baimenik gabe.
- 6.- Neska-mutileen erantzukizuna da normaltasun osoz elikatzea, hau da, beraien lagunek jaten dutena jatea.
- 7.- Neska-mutilek kapamentuan ezarritako ordutegia bete beharko dute: Jaikitzeako ordua, jatorduetakoa, lokartzekoa, ekintzen ordutegia... noizbait berandutzeko malgutasunarekin baina ez taldeko erritmoa apurtzeko joerarekin.
- 8.- Neska-mutilek beraien lagunen deskantsuak, jolasak, jatordua... errespetatu beharko dute.
- 9.- Neska-mutilek ezin izango dute sakeleko telefonoa eraman ez eta jolas elektronikoa, gameboy, gamegears edo antzekorik ere. Izan ere, udalekura beste lagun batzuekin erlazionatzera eta elkarbizitzera datoz eta horiek ez dira beharrezkoak programatutako ekintza pedagogikoak aurrera eramateko. Begiraleren batek horrelako jolasen bat aurkituz gero, berak hartu eta gordeko luke.
- 10.- Neska-mutilek ezin dute telefono deirik jaso ez eta bisitarik ere. Udalekuko instalakuntzek hala ahalbideratzen duten neurrian, zuzendariak eta begiraleak arduratuko dira honek bere etxera dei dezan, hauek hala nahi badute.
- 11.- Neska-mutilek libreki eta inolako zentsurarik gabe idatzi ahalko die beraien etxekoei edo nahi dutenei, baina udalekuko zuzendaritzak gutunak igortzeko ezarritako egunekin bat etorri beharko dute.
- 12.- Nahiz eta, udalekuko egonaldian zehar neska-mutilek beraien beharrak asetuta izan, IKEk idatziz jakinaraziko dien diru kantitatea eraman beharko dute (denen

## Ikas kultur elkarteko udalekuetako guraso eta gazteen protokoloa

berdintasunerako, ez gehiago ez gutxiago). Diru kantitate hori udalekuan zehar gastu txikiak egiteko da (izozkia, patata poltsa... eta ez opariak erosteko), beraz, begiraleei emango zaie diru guztia, eta hau izango da dirua administratuko duena. Norbaitk diru gehiago eramanez gero, ezarritako diru kantitatetik gorakoa taldearentzako opari gisa hartuko da eta taldearen onurako erabiliko da. Talde horren tutore den begiraleak erabakiko du zer egin diru horrekin.

13.- Neska-mutilek ez dute mahai-tresnarik, labanik... eraman beharko, udalekuan beharrezko material guztia baitago ekintzak normaltasunez garatzeko. Begiraleren batek beraien berri izanez gero, konfiskatu egingo lituzke.

14.- Neska-mutilek udalekuan zehar, ez dute droga legalik edo ilegalik eramango, ez eta kontsumituko ere. Begiraleren batek euren berri izanez gero, konfiskatu egingo lituzke.

15.- Neska-mutileen batek zerbait aurkituz gero, ez litzateke berarekin geratuko, begiraleren bati edo zuzendariari eman beharko dio.

16.- Neska-mutilek udalekuko araudia bete beharko dute. Sarritan beteko ez balitz, jarrera desegokiak agertuko balira edo udalekuaren normaltasuna aztoratuko balitz, kasu horietan, zuzendariak kargu hartuko luke erantzuleak kaleratzera arte. Azkenengo kasu hauetan, lehenbizi gurasoei jakinaraziko zaie.

## 1 ERANSKINA: Zuen iritzia/ zer aldatuko zenuke?

Beheko koadroan, Ikas Kultur Elkarteko Kanpamenduetako begiraleen protokoloa hobetzeko beharrezkoak iruditzen zaizkizun iradokizunak, argitasunak eta ekarpenak adieraz ditzakezu. Eskertuko genizuke ahalik eta zehatzena izatea, zure aholkuak zuzen koka ditzagun (esaterako: *“errespetuaren balorean, ekintzetan, “XXXX” jartzen duen tokian komenigarria litzateke “YYYY” jartzea eta / edo gainera “ondoko ezaugarri hau” gaineratzea*).

Behar izanez gero, orri honi nahi beste fotokopia atera diezaiokezu. Behin bete duzunean, IKEko Kanpamenduen proiektuko arduraduna den Mikel Azanzari igorri.

Eskerrik asko zure parte hartzeagatik.

### BEHAKETAK, EKARPENAK ETA IRADOKIZUNAK

1

2

3

4

5